



dokuMentala 2024 JAIALDIAREN DEIALDIA

Argia Fundazioak deialdia ireki du lehia bidezko konkurrentzia bidez **dokuMentala 2024** jaialdiaren **BIGARREN** ediziorako

Argia Fundazioak gaixotasun mentalekin diagnostikatutako pertsonen bizitza-kalitatea eta gizarteak kolektibo honetaz duen irudia hobetzeko lan egiten du.

dokuMentala jaialdia 2019 urtean jaio zen pertsonen arteko babesaren botere eraldatzaileak zinearen bidez erakusteko

2024 urteko jaialdiaren deialdia argitaratzen da, jarraian zehaztutakoek arautuko dutena.



Algortako Aita Trinitarioek (Bilboko Gotzaitegia) bultzatutako elkarte
Bilbao Bizkaia Kutzarekin batera.

Trinitate kalea, 11. 48993 Algorta - Getxo, Bizkaia ☎ Tel. 94-491.19.46 -
94.460.70.12 ☎ Faxe: 94-460.70.80 ☎ contacta@argiafundazioa.org ☎
www.argiafundazioa.org



dokuMentala 2024 JAIALDIAREN OINARRIAK

1. GAIA

Proposamenen ardatz tematikoa pertsonengan, taldeengan eta udalerriengan aldaketa positiboa eraginez gizartean eman daitezkeen babes harremanak erakustea izango dira.

(Adib.: belaunaldien arteko harremanak, gizarte-bazterketa arriskuan dauden taldeak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, kirolaren arloan ematen diren harremanak, lan arlokoa, animaliekin...)

2. PARTE-HARTZAILEAK

- 2.1. Edozein pertsonak edo erakundek parte har dezake **dokuMentala 2024** jaialdian.
- 2.2. Parte-hartzaileetakoren bat (zuzendaritza edo interpretazioa) adingabea izatekotan gure web-orriko deskargen atalean aurkituko duen baimena erantsi beharko du. Hona esteka:
www.argiafundazioa.org
Baimen hau helbide elektronikoko honetara bidali beharko da:
dokumentala@argiafundazioa.org

3. PARTE-HARTZE MAILAK

- 3.1. Parte hartzeko hiru MAILA ezartzen dira:
- a. FILM LABURRA
 - i. Maila honetan edozein motatako film laburrak aurkeztu ahalko dira: fikziozko filmak, dokumentalak, animaziozkoak, etab.
 - b. GIZARTE ERAKUNDEA
 - i. Maila honetan irabazi-asmorik gabe zaurgarritasun egoeran dauden taldeekin gizarte arloan lan egiten duten gizarte-erakundeek, fundazioek, elkarteek eta GKE-ek hartu ahalko dute parte.
 - c. AGINTZEN
 - i. Kategoria honetan zuzendari berrien edo 25 urtetik beherakoen proposamenak aurkez daitezke.
- 3.2. Film laburrak euskaraz edo gaztaniaz aurkeztu ahalko dira.
- 3.3. Film labur bakoitzak 2 minutuko iraupena izango du gutxienez eta 15 minutukoa gehienez.

- 3.4. Izen-ematea eta lanen aurkezpena egiteko epea 2024eko azaroaren 1eko 24:00ak artekoa izango da.
- 3.5. Ikus-entzunezko lanak online bidaliko dira plataforma digitalaren bidez
- a. FESTHOME: <https://festhome.com/f/5412>
 - b. WeTransferetik hurrengo helbide elektronikoaren bidez:
dokumentala@argiafundazioa.org
Gure web-orriko **dokuMentala** deskargen atalean aurkitzen den inskripzio orria erantsita bidaltzea beharrezkoa izango da.
Hona esteka: www.argiafundazioa.org
 - c. DVD edo Pen Drive euskarrietan ere aurkeztu ahalko dira hurrengo formatuetan: .mp4 edo .mov (edo antzekoak) gure egoitzan: Argia Fundazioa, Trinitate kalea, 11, 48993 Algorta-Getxo
Gure web-orriko **dokuMentala** deskargen atalean aurkitzen den inskripzio orria erantsita bidaltzea beharrezkoa izango da.
Hona esteka: www.argiafundazioa.org
- 3.6. Proposamena balioztatzean informazio gehigarria eskatuko da email bidez

4. SARIAK.

1. Film labur onenaren lehen saria: 1.400 euro.
2. Film labur onenaren bigarren saria: 1.100 euro.
3. Argia Fundazioa Saria: gizarte erakunde batek egindako proposamen onenari, 1000 euro.
4. Accésit Promesas, zinemagile berri batek edo 25 urtetik beherako batek zuzendutako eta 400 eurotan baloratutako ikus-entzunezko materialaz hornitutako proposamenik onenari helduko zaiona. Saria taldeko arduradunaren edo zuzendariaren kontura transferituko edo ingresatuko da.

Saria 7/2014 FORU DEKRETUAK (apirilaren 8koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duenak) 98. artikuluan ezartzen dituen murrizketei eta sarien gaineko atxikipenei lotuta egongo da.

Irabazleen erantzukizuna izango da zergen arloan egoki diren legeriak agindutakoari jarraituz ingresatu edo atxiki beharreko zenbatekoak bere egitea.

5. EPAIMAHAIA

- 5.1. Antolakuntzak ARGIA FUNDAZIOAREkin harremana duten profesionalen eta ikus-entzunezkoen, artearen eta kulturaren arloekin

harremana duten pertsonekin osatuko du epaimahaia.

- 5.2. Irizpideak hauek izango dira:
 - 5.2.1. ardatz-tematikoarekin lotura,
 - 5.2.2. denboran zehar izango duen erabilera pedagogikoa
 - 5.2.3. sormena
 - 5.2.4. film laburraren kalitate teknikoa
- 5.3. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
- 5.4. Epaimahaiak sariren bat xedatu gabe utzi ahalko du aurkeztutako lanek kalitate nahikoa ez dutela pentsatzekotan.
- 5.5. Epaimahaiak beharrezkotzat jotzen badu maila berean aparteko sariren bat ematea, sari horren zenbatekoa partekatu egingo da.
- 5.6. Jaialdia bukatutakoan antolakuntzak ezingo ditu film laburrak irabazi-asmoz erakutsi, hezkuntza edo kultura helburuekin bakarrik.
- 5.7. Antolakuntzak indarrean dagoen Datuen Babeserako Erregulamendu Orokorra betetzeko konpromisoa hartzen du. Festhomen edo izena emateko beharrezkoa den beste edozein dokumentutan agertzen diren datu pertsonalak ez dira zabalduko ez hirugarren pertsonari emango. Bakarrik jaialdiaren antolakuntzaren barnean erabiliko dira.
- 5.8. Antolakuntza ez da izango film laburrak proiektatzerakoan sortu daitezkeen arazo teknikoen

erantzulea, ezta film laburra proiektatzea galarazi dezaketen arrazoi tekniko posibleen erantzule ere.

5.9. Jaialdian parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

5.10. Argia Fundazioak osasun mentala ardatz duten film laburren ekoizpenerako beharrezkoak izan daitezkeen giza-baliabideak eta instalazioak emateko konpromisoa hartzen du. Horretarako, bidali e-mail bat hurrengo helbidera:

dokumentala@argiafundazioa.org

Bertan garatuko den ideia azalduko da, behar diren giza-baliabide eta instalazioekin batera.

6. JAIALDIAREN ERAKUSKETA FORMATUA

- **dokuMentala 2024** jaialdia 2024eko azaro edo abenduan ospatuko da oraindik erabakitzeke dagoen Bizkaiko toki batean. Bertan erakutsi eta proiektatuko dira saritutako film laburrak. Horrez gain, jaialdiaren gaiaren inguruko emanaldi ezberdinak egongo dira.
- Gainera, film labur ezberdinak ikusi eta ikuspuntu ezberdinetatik babesaren gaiaren inguruan sakontzeko aprobetxatuko ditugun aurretiazko jardunaldiak izango ditugu (izaera murriztuagokoak, jendarteari zabalik eta doakoak).
- Jardunaldi horiek aurretiaz iragarri eta barreiatuak izango dira.

7. JAIALDIAREN OSPAKIZUNAREN EGUTEGIA

- LANEN ONARPENA: 2024ko apirilaren 1etik 2024ko azaroaren 01era
- EPAIMAHAIAREN HAUSNARKETA: 2024ko azaroaren 1etik azaroaren 20ra
- JAIALDIAREN AURRETIAZKO JARDUNALDIAK ETA SARIAK BANATZEKO GALA: 2024KO AZAROA eta ABENDUA hilabeteetan